

1958-IV-24

Donostian, bildu dira: buru, I. M. Etxaide, Mitxelena, Lekuona, Villasante, Arrue, Gorostiaga ta Oleaga euskaltzainak. Anai V. Berriochoa, Alvarez Empananza, Irigoyen ta Etxaniz urgazleak. Irigarai jaunak ezin etorria adierazi dau.

Oi dan otoitzagaz asi da batzarra.

Lengo agiria irakurri da ta onetsia izan da. Gero aitatu da joan dan illeko 31-ean amaitu dala bizkaierazko euskal-metodoaren sariketarako epea eta iñok eztauela bialdu lanik. Azertu bedi arazo au, ia nori eskatu leion egin daian.

Arrue jaunak lantxo bat irakurri dau "Nombres de la Calandria".

Lopez de Guereñu jaunak lan luze bat bialdu dau "Voces Alavesas".

Mitxelenak diño datorren udan Saraitzura joatekoa dala egun batzuetan ango euskalkia aztertuten.

Gorostiaga jaunak lan bat irakurri dau "Nombres de la semana".

Altube jaunaren barri emoten da. Orainsu Gernikan finkatu dau bere bizilekua eta diño oraingoz batzarretara ezin etorri bada be lanen bat edo beste gertatuko dituala.

Miguel Angel Astiz jauna urgazle izendatzen da euskeraren alde egiten ari dan zabalkunde bikaiñagaitik.

Oi dan otoitzagaz amaitu da batzarra.